

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2015-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den maiatzaren 18an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Gipuzkoako lurralde historikoaren (GLH) 2015eko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi eta Kabia) eta bere sozietate publikoen kontuek (IZFE, Bidegi eta Etorlur Gipuzkoako Lurra). Txostenari Osoko bilkurako kide batek boto partikularra jarri dio.

HKEEK aldeko iritzia plazaratu du Gipuzkoako lurralde historikoaren gainean, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFAREN Diruzaintza Geldikina 3,7 milioi euroan handituko luketenak. Gainera, HKEEK ezin egiaztatu izan du GFAREN Egoeraren balantzean jasotako ibilgetuko hainbat kontu-sailen kostua eta amortizazioa, horien xehapenik ez izateagatik.

Txostenak Kontu Orokorraren finantza egoera aztertu du eta azpimarratu du zergen diru-bilketaren berroneratzea tinkotu egin dela 2015ean eta Emaizta arrunta eta Diruzaintza geldikina 37 milioi euroan handitu dela. Baliatutako zorpetzea 19 milioi euroan gehitu da.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. GFAK Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri dio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

Aldundiak, erakunde autonomoak eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **legezko araudia**, nahiz unean uneko hutsak azaleratu diren oker luzatutako kredituetan, diru-laguntzen zuzeneko emakidan, deialdi publikoa egitea eragozten zuten arrazoiak justifikatu gabe, eta administrazioiko kontratazioaren atalean.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, hain zuzen ere, akatsak azaleratu dira 9 kontratu esleitzeko prozedurari dagokionez, guztira 3,2 milioi euroan esleitutakoa, eta gizarte zerbitzuetako zenbait kontraturen luzapenean eta errepideko bidaiarien garraio publikoko ohiko zerbitzuen emakidetan, 2015ean 9,7 milioi euroren gastua eragin dutenak eta zerbitzu ematen jarraitzen dutenak nahiz kontratu/emakiden epeak iraungi diren, kontratu berriak esleitzean izandako berandutza dela eta.